



Tolosako doinuak CD batean jaso ditu Samaniegok

PARTAIDEAK ▶ 'Samaniego kantari: kanta zaharrak berritzeko asmoz' diskoa kaleratu dute; ikastetxeko ikasleek, irakasleek eta gurasoek hartu dute parte ▶ 3



Diskoan parte hartu dutenak CDarekin atzo Kultur Etxean. I. ETXEBESTE



LUIS MIGUEL ESPINOSA ▶ ZUZENDARI ARTISTIKOA

«Gertu ikusten da Abesbatza Lehiaketa, festa herrikoia baita»

Berrehun lagunetik gora aritzen dira antolaketa lanetan Tolosan

Gaur hasiko da lehia Ukraina, Txekia eta Erresuma Batuko abesbatzekin ▶ 2



LEIRE MONTES

Herrian eskola dago berriro, hogeita hamar urte itxita egon ondoren

ABALTZISKETA ▶ Herriko eskola berriro zabaldu dute Abaltzisketan, aurrekoa duela 30 urte itxi ondoren. Azken urteotan Amezketako Zumadi eskolako gela batzuk izan dira bertan. Guztira 2 eta 7 urte arteko 16 ikasle daude. OLAIA ESKITXABEL ▶ 5

BERASTEGI ▶

Azken teknologiak ikusgai daude eskolan

Sarekide erakusketa adin guztietara dago zabaldua ▶ 6



Antena. I. TERRADILLOS

LEITZA ▶

2005ko zerga eta tasak zehaztuko dira biharko batzarrean

Taxiak eta mendia ere, mintzagai ▶ 7

LUIS MIGUEL ESPINOSA ▶ ZUZENDARI ARTISTIKOA

«Entzulegoak egiten du lehiaketa hau desberdin»

Tolosako herriak Abesbatza Lehiaketa «gertu» ikusten duela dio Luis Miguel Espinosa zuzendari artistikoa

LEIRE MONTES

Eskolan zebilenean joan zen lehendabiziko aldiz Abesbatza Lehiaketara, eta «liluratirik» utzi zuen saioak. Orain topaketako zuzendari artistikoa da Luis Miguel Espinosa tolosarra. Eta musikak liluratzen jarraitzen du.

Aho zabalik utzi omen zintuen txikitan Abesbatza Lehiaketak. Orduan jakin al zenuen horretan aritu nahi zenuela?

Eskolarekin joan nintzen lehendabiziko aldiz. Ziur nago orduan ez nekiela oso argi zer ikusi eta entzun nuen, baina txundituta utzi ninduen. Urte batzuk pasatuta, 15 urte nituela, lehiaketa laguntzen hasi nintzen; beste edozein boluntario bezala, eszenatokian laguntzen, mahaiaek zerbitzen... 1986an Antxon Ellosegik deitu zidan, eta abesbatzak aukeratzeko laguntzaile hasi nintzen orduan. 1988tik ari gara nire lan taldea eta ni.

Asko aldatu al da lehiaketa urte hauetan guztietan?

Bai, asko. Ni haurra nintzenean euskal abesbatzek hartzen zuten parte. Gero atzerriko hainbat iritsi ziren, baina oso-oso gutxi. 1988an iritsi zen aldaketarik nabarmenena: Europako Ekonomi Elkarteko (egun EB) abesbatzak hasi ziren. Diru laguntzak jasotzen hasi ginen, eta horrela posible zen kanpora joan eta koruak aurrez aurre entzutea. Euskal Herria zabal-tzen ari zen. Baita lehiaketa bera ere, baliabide gehiago zeudelako.

Noiz hasten zarete hurrengo urteko topaketa prestatzen?

Ez diogu sekula prestatzeaz aritu. Adibidez, 2006ko lehiaketarako abesbatza bat lotu



LEIRE MONTES

dugu duela gutxi. Etengabe aritzen gara lanean, eta uneoro lehiaketa pentsatzen.

Europa Iparraldeko abesbatza dezente izaten da urtero...

Europa Iparraldean eta Baltikoan tradizio handia dago, eta hori nabaritu egiten da urtero. Ingalaterran ere badute musika eta abesbatza kulturarik. Dena den, zaila da hango abesbatzak ekartzea; lehiaketan aritzen dira, baina ez dira bere herritik ateratzen. Lehiaketaren historian Ingalaterrako hiru abesbatza besterik ez ditugu izan. Aurten, kasualitatez, hiruk hartuko dute parte.

Zergatik Ameriketako hain abesbatza gutxi?

Batez ere, zaila da AEBetakoak ekartzea. Han, profesionalek pasatu aurretik, abesbatzak unibertsitatekoak dira. Eta lehiaketa egiten dugun garaian azterketan harrapatzen ditugu bete-betean. Kubako zenbait talde etorri izan dira, eta aurten ere baditugu.

Abesbatza guztientzat al da lehen aldia Tolosan?

Ukraniako Glier kenduta, bai. Ez zaigu gustatzen gehiegi errepikatzea. Izan ere, lehiaketaren helburuetako bat abesbatzak ezagutzera ematea da. **Euskal Herriak hiru ordezkari izango ditu aurten.**

Kopuru polita da, bai. Ziur nago maila handia eskainiko dutela; bikain ordezkatzeko gaituzte.

Erronka handia da horrelako topaketa antolatzea...

Lurralde txiki guztiek sentitzen dute musika bere tradizioaren zati, eta Euskal Herria ez da salbuespena. Baina gure kasuan ez dago profesionaltasun handirik, amateur asko dago; atzetik ez delako behar bezala lantzen eta babesten.

Zenbat lagun ari zarete burubelarri lanean?

Berrehun lagunetik gora.

Zergatik da beti hain arrakatsua topaketa?

Entzulegoa da arrakastaren gakoa. Hark egiten du lehiaketa hau desberdin. Tolosak musika tradizio handia du. Baina, batez ere, gertu ikusten du topaketa, festa herrikoia baita.

GAURKO EGITARAUA ▶ LEIDORREN, 19:30EAN

POLIFONIA

Foerster Female Chamber Choir (Txekia).

- ▶ *Ecce Maria.*
- ▶ *Ave Maria.*
- ▶ *Charmone-syntychia.*
- ▶ *Bez pory da bez Vremen.*
- ▶ *Lamento di Arianna.*

Coro (Erresuma Batua).

- ▶ *As vesta was from atmos hill descending.*
- ▶ *O quam suavis est.*
- ▶ *Ein kleiner hubscher vogel.*
- ▶ *Leonardo dreams of his flying machine.*

Khreschatyk Chamber Choir (Ukraina).

- ▶ *Crucifixus.*
- ▶ *Angel is crying.*
- ▶ *O quam suavis est.*
- ▶ *Grief to ones, who...*
- ▶ *Deutsch requiem.*
- ▶ *Herr, du bis würdig.*

FOLKLOREA

Foerster Female Chamber Choir (Txekia).

- ▶ *Pisen ceska.*
- ▶ *Mendian gora.*
- ▶ *Uraren besotik.*
- ▶ *Letela bilá hus.*
- ▶ *Kravarky.*

Coro (Erresuma Batua).

- ▶ *Ametsetan.*
- ▶ *The ballad of green broom.*
- ▶ *Neure maítana.*
- ▶ *Drunken sailor.*
- ▶ *The lover's ghost.*
- ▶ *Quici we have but a second.*

Khreschatyk Chamber Choir (Ukraina).

- ▶ *Ones a crane.*
- ▶ *Wedding of the fly.*
- ▶ *Ametsetan.*
- ▶ *Une vieille chanson d'amour.*
- ▶ *Haide, kate, haide, zlato.*

GAURKO TALDEAK ▶ BANAN BANA

FOERSTER FEMALE CHAMBER CHOIR

Lurraldea. Praga, Txekia.**Zuzendaria.** Lukas Vasilek.**Taldeakideak.** 35 emakume.**Ahots berdinak.** Polifonia eta folklore.

Historia. Rudolf Zeman eta Libuse Krcjcov zuzendariak sortu zuten taldea, 1975an; 1998tik, Lukas Vasilek zuzentzen du. Txekiako emakumezko abesbatzarik onenetarikoa da. Errepertorio zabala du taldeak, baina XX. mendeko obrak lantzen ditu bereziki. Konposizio asko estreinatu ditu, horietako asko haientzat eginak. Nazioarteko jaialdi eta lehiaketa ugaritan hartu du parte. Hiru disko ditu.

CORO

Lurraldea. Londres, Erresuma Batua.**Zuzendaria.** Mark Griffiths.**Taldeakideak.** 27: 14 emakume eta 13 gizon.**Ahots nahasiak.** Polifonia eta folklore.

Historia. Susan Digby-k sortu zuen 2000. urtean. Egungo, Londreseko ganbara

abesbatza nagusienetakoa da. Bere errepertorioa *a capella* abesbatza errepertorio guztia eta ganbarako orkestrekin abestutako oratorioak jasotzen ditu. Tallingo International Choral Competition lehiaketa irabazi zuen iaz.

KHRESHCHATYK CHAMBER CHOIR

Lurraldea. Kiev, Ukraina.**Zuzendaria.** Larissa Bulkhonska.**Taldeakideak.** 21: 11 emakume eta 10 gizon.

Ahots nahasiak eta ahots taldeak. Polifonia eta folklore, eta musika sakra eta profanoa.

Historia. 1994an jaioa, Kieveko Kontserbatorioan eskaini zuen lehen kontzertua.

Dytchko, Stankovych, Filts, Gubarenko eta beste ukrainiar

kompositore askoren lan modernoak abestea du xede.

Lehiaketa askotan jaso ditu sariak; besteak beste, Sari Nagusia Norwich Irish

International Choir Festival-en (1994) eta Lehen Saria

International Mendelssohn Choir Competition in

Daupfetal-en (1996).



36. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

Babesle Ofiziala

VILLABONA ▶ ANTZERKIA

San Pedro eta deabrua parez pare

Markeliñe taldeak esistentziaren ondorengo bizitzaz diharduen 'Punto rabo' antzezlanaren aurkeztuko du bihar gaueko 22:30etan Gurea aretoan

NOELIA LATABURU

Bizitzaren ondoren nora goaz? Zer misterio ezkututzen da atzean? Galdera hauen inguruan hamaika eztabaida izan da urteetan zehar. Bihar, Villabonako kultur ekintzen barruan, gaueko 22:30ean eskainiko den antzezlanak ere gai honen inguruan dihardu. Baina, era dibertigarri eta berri batean. Markeliñe antzerki taldearen eskutik *Punto rabo* lana izango da ikusgai Gurea aretoan.

«Aretotarako aurkeztu dugun azken antzezlan hau harri-garria, dibertigarria eta eroa da», azaltzen dute Markeliñe taldeko partaideek. Eszenatokia zeruko linboan kokatzen da. Antzezlanak ere ikuslea harrituko duen baliabideak erabiltzen ditu; besteak beste, elementu piroteknikoekin edota plastikoekin bitartez sortzen den eszenatokiarekin jolastan du, argia eta haize mugimenduekin sentipen eta forma ezberdinak lortzen dituena. Bi pertsonaiak osatzen dute antzezlanaren taldea, Juanjo Otero eta Pako Revueltas aktoreek, hain zuzen ere. San Pedro eta Fausto deabrua izango dira protagonista eta kritikoen esanetan, «clown moduko pertsonaiak dira, farregarriak eta mugimendu bereziekin beraien pertsonaien izaera borobiltzen dutenak».

Antzezlanaren mamia

Punto rabo beste ezer baino gehiago, ikuskizun ero eta poetikoa da. Elizako goi agintariak linbo eta purgatorio kontzeptuak kendu dituela eta, antzezlanak hauei erreparatuak die. Markeliñe erabat konbentzionala ez den espazio hori lantzen du, hau da, esistentziaren



Juanjo Otero eta Pako Revueltas aktoreak eszenatoki gainean *Punto rabo* antzezlanaren aurkeztu. HITZA

ondoren dagoen espazioa. Zer gertatzen da gure arimekin? Nork biltzen ditu? Nork zaintzen ditu? Nora goaz hil ondoren? Antzezlanaren misterioz beteriko galdera hauek argitzeko lanetan aurkeztu dira.

Betirako patua bilatzen ari diren arima herratuen salerosketaren negozioak kale egin du, baina gutxienez azpiegiturara geratzen omen da; itxaron gela, zeruaren atea alde batean eta infernuko atea, bestean. Eta, bi ate horien zaindariak, zertan ariko ote dira orain?

Punto rabo ikuskizuna zeruaren eta infernuaren ataria den gune horretan garatzen da. Bertan, San Pedro, zeruaren zaindaria eta Fausto deabrua, infernuaren zaindaria, arimen deiei erantzuten ari dira.

Antzezlanak, bestalde, ikuslearekiko konplizitatea lortu nahi du garapenaren zehar egiten diren jokuen bidez. Esistentziaren ondoren aurkitzen denaren edo ez denaren inguruko lan honetan aspertzeko aukerarik ez du izango ikustaldira gerturatzen denak.



Aktorea lanean. HITZA

VILLABONA ▶ BERTSOLARITZA

Bertsolaritza sustatzeko helburuz bertso eskola jarriko da abian azaroan

Bihar 20:00etan bilera egingo da Euskaltegian egutegia zehazteko

N. LATABURU

Zortziko txikia bota nahi eta ezin? Hau arazo bat izan ez dadin, Villabonako Udalak, herrian bertsolaritzarekiko zale-tasuna sustatu helburu, ikastaroak antolatuta ditu 2004-05 ikasturterako.

Gipuzkoako Bertsozale Elkartek ere parte hartu du ekimen honetan haur eta gazteen artean bertsolaritza zabaltzeko; eta, besteak beste, irakasleak elkartek berak izendatuko ditu.

Klaseak azaroan hasiko dira eta ekaina bitartean izango

dira, oraindik ere eguna eta ardua jakina ez den arren. Hauek eta bestelako xehetasunak argitzeko bihar arratsaldeko 20:00etan bilera egingo da herriko Euskaltegian.

Iritzia eta proposamenak eman nahi dituenak bertara azaldu beharko du, hemen erabakiko baita ikastaroaren egutegia eta, honekin batera, ikasturterako taldeak ere osatuko dira.

Bertso eskola honek adin ezberdinetako aukera eskaintzen du, bertso zaltetasunak adinik ez duelakoan. Alde batetik, hamar eta hamalau urte

bitartekoentzat. Bestalde, hamalau urte gorakoentzat. Talde guztien irakaslea Amaia Agirre izango da.

Ikastaroaren ordainketa, berri-iz, behin taldeak finkatu ondoren egingo da. Diru sarrera, azaroaren 28a baino lehen egin beharko da Kutzako kontu korrante honetan: 2101 0072 78 0000068122. Ordaintzerakoan, bertso eskolara zuzendutako dirua dela zehazteko eskatu beharko da. Ikastaroak 35 euro balio ditu. Villabonako Udalak jendea animatzera deitzen du bihar izango den bilera...

FITXA TEKNIKOA ▶

Hauek dira *Punto rabo* antzezlanaren parte hartzen duten taldekideak.

Gidoia eta zuzendaritza. Markeliñe.

Antzezleak. Juanjo Otero eta Pako Revueltas.

Artistiko zuzendaritza.

Maria Jose de la Hoz.

Tekniko zuzendaritza. Jon Kepa Zumaldea

Argien diseinua. Aitor Agorria

Musikaren aukeraketa.

Joserra Martinez

Diseinu grafikoa.

Amorebieta grafikak

Koordinaketa. Joserra Martinez

GAKOAK

Aretoetan antzezteko aurkezten den azken lan honetan sorpresa harrigarriak eta erokeria dira gakoak

PERTSONAIKAK

Pertsonaiak beraien gorputzaren mugimenduekin hitz egiten dute eta algarak sortarazten dituzte

VILLABONA ▶

AHTren aurka hitzaldia, bihar 19:00etan Gaztetxean

N. LATABURU

Villabonako herriak ere bat egingo du Anoetako herriak antolatuta duen Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako astearekin...

Horretarako bihar arratsaldeko 19:00etan hitzaldia antolatuta du Gaztetxean, AHTk izan ditzakeen ondorio larriak hipzide. Era berean, etzi, larunbata, mendia martxa izango da. Ekitaldi hauen helburua, besteak beste, jendea azaroaren 6an Donostian izango den AHTren aurkako manifestaziora deitzera izango da.

Eguzkilore
Ioradenda

Egin itzazu zure enkargu guztiak Santu Guztien egunerako

Euskalerria kalea, 16-bis
20400 Ibarra
Tel. 943 670 296

ALTZO ▶

KZgunearen ordutegiak, azaroan zehar

Altzoko KZgunea goizez egongo da irekita azaroaren 2tik 12ra bitarte; 09:00etatik 13:00etara aurkituko dute irekita erabiltzaileek. Azaroaren 15etik 26era, berriz, arratsalde, 16:00etatik 20:00etara, irekiko ditu ateak. Ordutegi horietaz gain, udaletxea edota liburutegia irekita dagoen ordutegian ere KZguneako ordenagailuak erabiltzeko aukera izango da.

ALEGIA ▶

Odola emateko aukera gaur arratsaldean

Alegian odola emateko aukera izango dute gaur arratsaldean mediku etxean. 19:00etatik 21:00etara alegiarrei odola ematera animatzeko deialdia luzatu du Odol Emaileen Elkarteak.

ORENDAIN ▶

Jubilatu Eguna egin zuten igandean

Jubilatu Eguna egin zuten pasa den igandean, urriaren 23an, orendaindarrek. 11:15ean meza nagusia entzun ondoren, hamaiketako egin zuten Eltxo elkartearen Udalak eskainita. Ondoren, Ostatu tabernan bazkalduta zuten; gerturatu ziren guztiak opari bana jaso zuten. Eta, herriko adinekoenek opari berezia eskuratu zuten. Udalak zehatu duenez, urtero pertsona desberdinei banatzen zaie opari hori, urtero pertsona berdinari ez ematearren. Aurten oparia jaso dutenak, *Urkola* baserriko Julian Urkola eta *Abali-Goena* baserriko Mercedes Garmendia izan dira.

ABALTZISKETA ▶ HEZKUNTZA

OLAI A ESKITXABEL

Orain dela hogeita hamar urte itxi zen Abaltzisketako eskola; ondorioz, Alegiako ikastetxera joaten hasi ziren bertako haurrak. Azken urteetan, hala ere, herriko Kultur Etxean gela batzuk egokitu eta Amezketako Zumadi eskolako parte bezala hasi zen funtzionatzen.

Aurtengo ikasturtea, berriz, Abaltzisketako eskola bezala jarri da martxan; eskola propioa dute berriro abaltzisketarrek. «Izen ofiziala izateko paperak egiten ari gara eta laister Txalburu izena hartuko du eskolak», azaldu du Izaskun Etxebestek, eskolako zuzendariak. Izan ere, abaltzisketarrak inguruko herritarrei gertatzen zaien bezala txalburu ezizenarekin ezagutzen dira. Inoiz baino gogotsuago hasi dute ikasturte berria, beraz.

Eskola propioa duten alde-rik, Inauterietako jaialdia, ikasturte amaierako jaialdia, gabonak... herrian ospatzeko aukera izango dute ikasleek. Hala ere, «hainbat irteera, beste hainbat herritako ikasleekin batera egingo ditugu, hori ere aberasgarria baita haurrentzat», aipatu du eskolako zuzendariak.

Eskolak, azken urteetan bezalaxe, Kultur Etxean izaten dituzte haurrek. Eta, horrek hainbat abantaila badituela azaldu du zuzendariak: «Liburutegia, KZguneako ordenagailuak... eskura ditugu». Eguraldi txarra egiten duenerako jolasgela ere badute goiko solairuan. Hala ere, epe motzean eraikin berria izan dezakete herriko gaztetxoek.

Hirugarren maila bitarteko hezkuntza

Egun, hamasei ikasle ari dira Abaltzisketako eskolan ikasten; bi urtetik zazpi urtera bitarteko haurrak dira. Eta bi gelatan banatuta ikasten dute; batean, bi, hiru eta lau urteko haurrak egoten dira, eta, bestean, bost, sei eta zazpi urtekoak. Gela bakoitzean tutore bana dute.

Hogeita hamar urte eta gero, herrian eskola dute berriro

Azken urteak Amezketako Zumadi eskolako gelak izatetik eskola gisara funtzionatzen hasi da Abaltzisketako eskola



Hamasei ikasle ari dira Abaltzisketako eskolan ikasten; bost irakasleren kargu daude. O.ESKITXABEL

Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako bigarren maila bitarte herrian ikasteko aukera izango dute txikiak: «2005eko ikasturtean, gainera, Lehen Hezkuntzako hirugarren maila ere eskaintzea lortu da», aurreratu du Etxebestek.

Bost irakasle ari dira Abaltzisketako eskola berrian lanean; horietaz gain, lanaldi laburra kontratatu duten irakasle espezializatuak ere badaude;

horiek ingelesa, heziketa fisikoa eta musika irakasten dute.

Informazioa biltzen

Hogeita hamar urte eta gero berriro ere eskola bezala funtzionatzen hasi direla-eta, horren inguruan aldizkari bat egiteko asmotan ari dira Abaltzisketako haurrak. Ikasturtean zehar osatuko dute aldizkari hori.

Eskola zeneko azken ikasle- eta irakasleen izenak, argazkiak... bildu eta elkarrizketak, erreportaiak... idatzi eta aldizkarian jaso nahi dituzte.

Ikasleak ezezik, irakasleak, Udala eta Guraso Elkarteak ere ari dira parte hartzen ekimen horretan. Udalak, informazio hori jasotzeko asmoz, idatzi bat bidaliko du etxeetara eta baserrietara garai hartako dokumentazioa eskatzu.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako galdera berria:

zer egingo zenuke Leidorren? Zer diozu Tolosako kultur azpiegituri buruz



MULTINEMA ▶ ORAIN BEZALA ▶ BERRITU ▶ IPARRAGIRRE ▶ TXOTXONGILO ZENTROA

LEITZA ▶ UDALA

2005eko zerga eta tasak zehaztuko ditu biharko batzarrean

Hilabeteroko ohiko bilkura honetan, taxien zerbitzua eta mendiko hainbat puntu ere izanen dituzte mahai gainean



Leitzako udaletxea. J.A.

JAIONE ASTIBIA

Bihar 21:00etatik aurrera eginen dute hilabeteroko batzarra, Leitzako udaletxean, eta hamaika gai izanen dituzte eskuartearen eztabaidatu eta erabakitzeke.

Besteak beste, 2005 zerga eta tasak zehaztuko dituzte, horrela, jasotzen diren hainbat zerbitzuren ordainetan herritarrek heldu den urtean or-

daindu beharreko kopuruak erabakiko dituzte bertan, hala nola ura, zabor bilketa, ur-belarrak, haurtzaindegiko matrikulak, idazkaritzako ziurtagiriak, badoak... moduko zerbitzuen tasak; eraikuntza eta obra lan guztiek, ibilgailuek... ordaindu beharreko zergen zenbatekoa;... Finean, herritarrek udalarekiko dituzten paga-beharraren inguruan ariko dira, batzutan kopuruak eguneratuz eta besteetan mantenduz. Hurrengo urteko aurrekontuak zehazteko aurreneko urratsa izaten da.

Taxi lizentziak

Leitzan garraio zerbitzuari lotuta, auto taxien lizentzien esleipena eginen dute batzar horretan bertan, gai zerrendan ageri denez.

Orain arte zerbitzu hori eskaini zezakeen lizentziadun gidari bakarra zegoen eta hori ugaritzeko hainbat interesatuk egindako eskariari jarraiki,

zerbitzu hau handitzeko aukera izanen dute, lizentzia berriak eskuan izanik.

Zerbitzuekin erlazioa duen beste gai bat ere eztabaidatzeko asmoan dira. Hain zuzen ere, orain berriro Leitzaldeko osasun etxera euskaraz ez dakien medikua etorri dela-eta, egoera hori salatu eta konponbidea emateko eskaria eginez, Larrain Herri Plataformak eta Aralarrek mozio bana aurkeztu baitute.

Egurra saltzera

Mendiko gaietako dagoikenez ere, hainbat akordio hartu beharko dituzte, esate baterako lur-trukaketa zenbait berretsiz edota behin behingoz onartuz.

Bestalde, bi egur loteren salmentarako baldintza plikak ere hortxe izanen dituzte eztabaidagai. Kasu honetan, Itzaira eta Guratz aldean ustiatu asmo diren bi lote jarriko dituzte salmentan, biak hala biak ere pinadiak izanik.



Zuhaitzak errepideetan

HAIZETEA ▶ Berdantzabart eta atzo egun guztian zehar ibili zen haizeak hainbat kalte eragin zituen inguruetan, etxeetako teilak mugitu ez ezik, zuhaitzak ere irauliz. Horrela, atzo goizean Aresoko errepidea moztuta egon zen, haize kolpe gogor batek, ezkanda-bazterreko haritz bati kanaerdiko lodierako adarra bihurritu eta, errepidean aldenbeste zeharkatuta geratu zelako. Goizueta aldeko errepidean ere beste hainbeste gertatu zen J. A.



Jatez gero bildu egin behar

ARESO ▶ Atzo arratsaldean, Aresoko ume koadrilatxoak gaztain biltzera joan ziren Olaetxetako gaztainadira, Guraso Elkarteak deituta, bezperako haizeak, kasu honetan alea lurrera bota zuenaz baliatuz. Azienda dezente ibilia zegoela adierazi zuten, baina hiru-lau danborekada erretzeko haina bilduko zuten itxaropena agertu zuten. Hurrengo egun hauetako batean, herri guztiari gonbitea egin eta gaztain erreak janez, lagunarteko otordua egiteko asmoa omen dute. JAIONE ASTIBIA.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Bihar, Leitzako plazatik hasita, presoan aldeko giza-katea eginen dute

Hilabateko azken ostiralero egin ohi dituzten deialdien barreneko ekitaldia izanen da

J. ASTIBIA

Bihar, hilabateko azken ostirala izanik, Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta, Leitzan giza-katea eginen dutela eman dute jakitera. Kateak, plazatik abia-

tu eta herrian barreneko auzo desberdinetan zeharreko ibilbidea izanen omen du.

Ekitaldiarako hitzordua 20:00etarako egin dute eta kasu honetan *Euskal preso politikoak etxera* leloean burutu-

ko dutela eman dute ezagutzera.

Ostiral honetako deialdiak, aspaldiko urteetan hilabete azken ostiraletan Leitzan bezala, Euskal Herriko eskualdeburu askotan, euskal preso eskubideen defentsan burutu ohi diren deialdiekin bat egiten du. Ekitaldi hauetan «dispertsioa, horrek eragindako senideen istripu eta heriotzak, tortura... salatu eta gaixotasunen eraginez aske egon beharko luketenen kaleratzea, zigorraren 3/4ak beteta dituzten preso askatasuna, amnistia... moduko esijentziak», aldarrikatzen dituzte, besteak beste.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

AGENDA ▶

ABESBATZA LEHIAKETA

Tolosa. Polifonia eta folklore sailetan Txekia, Erresuma Batua eta Ukrainako abesbatzek parte hartuko dute. Leidorren 19:30ean.

AURKITUAKOAK

Tolosa. Giltza batzuk aurkitu dituzte Araba etorbideko obretan. HITZAn dauzkagu jasota.

DEIALDIAK

Alegia. Eider Alberdiren Arteria-hipertentsioari aurrea hartu eta ezagutzeko hitzaldia 16:30ean Jubilatuen Elkartearen

Anoeta. Ekiniza informatiboa Gaztearen 19:00etan AHTren aurkako astearren barruan.

Lizartza. Arau subsidiarioei buruzko herri batzarra. 21:00etan udaletxean. Axurdariok deituta.

Tolosa. Neoliberalismoaren aurkako kalejira. Hitzaldia 17:00etan Kultur Etxean eta 18:00etan kalejira Triangulotik abiatuta eta 18:30ean ikuskizun umoretsua Triangulon. ELAk deituta.

Tolosa. Jesusen Zerbitzarietako ikasleen bilerarako azaroaren 7an. izen-ematea: 943 67 30 81.

Villabona. Maria Jose Garciaeren Komunikazioa eta adiskidetasuna, bizitza osasuntzurako giltzarriak hitzaldia 17:00etan Biltokin.

Villabona. Hitzaldia AHTk ekarriko dituen ondorioei buruz. Gaztearen 19:00etan.

ERAKUSKETAK

Hernialde. Maria Luisa Irastorza. Koadroak Ostatur.

Ibarra. Ogibideak eta lanbideak, Kultur Etxean.

Leitza. Pako Zufiaurren argazkiak Torrea tabernan.

Tolosa. Nerea Lopezen koadroak Frontonen.


Tolosa. Ana Gonzalezen lore lehorrak Saikin tabernan.

Tolosa. David Barandiaran. Koadroak Sorrondan.

Tolosa. Maria Luisa Irastorza. Olioak Lanbroan.

ZINE-KLUBA

Ibarra. Fahrenheit 9/11. Gaztearen 21:45ean.



Tolosako orrigarri gisa txapela eramaten dute atzerritar askok. J.SAIZAR



Gozokiak eta jateko gaiak arrakasta dute erosleen artean. J.SAIZAR

Gozokiak, txapelak eta musika

TOLOSA ▶ Gaur zabalduko da Abesbatza Lehiaketako denda Banco Zaragozazan tokian; kanpotarrek eta bertakoek hemengo produktuak eros dezakete



Lehiaketarekin erlazioz atutako materiala salgai dago denda: CDak, partiturak, programak... J. SAIZAR

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, TEEK Abesbatza Lehiaketako denda zabalduko du gaur San Frantzisko ibiltokian, lehen Banco Zaragozazan zegoen lekuan.

Denda honen helburua Lehiaketaren erlazioz atutako materialak —partiturak, CDak, egitarauak...— eta Tolosaldeko produktuak erakustea eta salgai jartzea da.

Azken hauen artean elika-gaiak kanpotarren artean «arrakasta berezia» dutela dio dendako arduradunak. Izan ere, Gorrotxategi eta Ezeiza gozodendetako xaxuak, teilak, zigarratxoak, turroiak, e.a. dau-de salgai. Tolosako babarrunak eta Ibarako piperrak ere ez dira falta. Elosegi txapel fabrikako produktuak ere badira salgai eta orrigarri gisa etxera eramaten dituzte kanpotik etortitako abesbatzetako kideak.

Tolosaldea Tourrek informazioa emango du postu batean. Lehiaketak irauten duen bitartean gongoz da zabalik.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Josu Puldain Mujika (Amezqueta).
Gaur 6 urte. Zorionak eta ondo pasa aitab, amaho eta familia osoaren partetik.



ZORIONAK
Maddi Azpitarte Tobar (Alegia). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.

HITZA, zorion agurren

1

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA

Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

tartea